



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA
2017/01/26

Bizkaiak Feveko lineatan "preminazko" hobekuntzak eskatu deutsez Adifi eta Renferi

Bizkaiko Batzar Nagusiek, EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bilduk sinatutako zuzenketa-eske transakzionala onetsi dabe gaur goizean egin dan Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordean, Gobernu Zentralaren esku dagozan Adifek eta Renfek, "preminazko" hobekuntzak egin daiezan Enkarterrietako Feveren lineatan (Bilbo-Balmaseda eta Bilbo-Karrantza), instalazioak, maiztasunak eta material mobikorra "gero eta egoera txarragoan" dagozalako.

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira esatean Feveko linea "itzikeria historikoa" ari dala jasaten Estaduko Administrazioaren aldetik. Geroago EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen zuzenketa eskea jaso dauen arauz besteko proposamena Batzarretara ekarri dauen Zigor Isuskiza EH Bilduko batzordekidearen eretziz, "penagarria eta lotsagarria" da trenbide estuko linea horreen egoerea. Esan dauenez, tamalgarria da "karramarroak moduan atzerantz joatea", "lehen baino gehiago irauten daben" ibilpideak edo "4 urte baino gehiagotan oraindino konpondu barik dagozan arazoak" dirala eta. EH Bilduko batzordekideak hainbat trenbide pasagunetan gertatu diran azkenengo harrapaketak be gogoratu ditu.

EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamenaren puntuak eta Foru Gobernua eusten daben talde bien beste eskari batzuk jasoten dituan behin betiko testuak argi eta garbi izten ditu, Unai Lerma batzordekide jeltzaleak adierazo dauenez, Feveko linean gauzatu behar diran jarduketak, eskintzen dauen zerbitzua hobetzeko. "Erabiltzaileak eta beharginak" eurak dira konponbide horreek eskatzen dituenak, Ekain Rico sozialistak aurretik esan dauenez. Bere berbetan, negargarria da linea horretan egindako "azkenengo inbertsinoa" 1996. urtekoa dala ikustea. Adierazo dauenez, "60ko hamarkadako garaietara" itzuli gara.

Abstenidu egin da PPK izan ezik Batzordeko talde guztiek onetsi daben testuan, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deutsee Adif eta Renfe enpresa publikoei eta Espainiako Gobernuko Sustapen Ministerioari "ahalik eta azkarren, Bilbo Abando-Balmaseda eta Bilbo Abando-Karrantza lineen trenbideetan eta euren azpiegituretan (geltoki, geraleku, nasa eta trenbide-pasaguneak) beharrezkoak diran hobetze eta mantentze lanak egin daiezan, ezinbesteko zerbitzuez hornidu, eta tren zerbitzua erabilten daben pertsona guztien irisgarritasuna eta segurtasuna bermatze aldera".

Bizkaiak "jarduketa egutegia" hastea eskatzen dau, trenbide bikotxa eregiteko Zaramilloko geltokiaren eta Arangureneko geltokiaren artean, eta "Trenbidearen trazaua eten barik hobetzeko plana" martxan jarteko. Gainera, "linea horretan gaueko trenak jarteko aukerea "aztertu daitela" eskatu dabe Bizkaiko Batzarrek, trenaren ibilpideko herrietan jaiak eta ekitaldi garrantzitsuak dagozanetarako, eta baita jendeari arretea eskintzeko beharginak jartea be.

Gainera, Arangureneko eta Karrantzako geltokien arteko elektrifikazioa amaitu daitela be eskatu dabe Bizkaiko Batzarrek, eta tren unidade zaharrak ordezkatzeko egutegia ezarri daitela, unidadeetan telefonia mobikorrera eta wifi-sareetara konektetako guneak jarritz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Gainera, Bizkaiko Batzar Nagusiek Karrantza-Bilbo lineako zerbitzuaren maiztasuna hobetzea eta itzaroteko denpora gehien eskatzen daberen trenbide igarobideetan inbertsino teknikoak egiteko be eskatu dabe. Bukatzeko, pertsonak eta ibilgailuek gehien erabilten dituen bidegurutzeak kentzeko eskaria egin da.

RENFEREN ETA FEVEREN TRANSFERENTZIA EUSKADIRA

Bukatzeko, dokumentu berean, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Espainiar Estaduko Gobernuari eskatzen deutes Eusko Jaurlaritzaren esku itzi daiala, “ahalik eta azkarren”, trenbide sarearen kudeaketea. Gai horrek eztabaidea eragin dau aurretik Batzordeko taldeen artean, Ametzolako geltokian komunikazinoa hobetzeagaz lotuta egoan EH Bildu taldearen arauz besteko beste proposamen bat dala eta. Puntu horren eraginez PP taldea abstenidu egin da, bere eretziz transferentzia eskatzea Konstituzinoan bertan ezarten danaren kontra joatea dalako, beste Autonomia Erkidego batzuk be hartzen dituen lineak dagozalako, Bilbo-Urduña linea, adibidez.

PPk izan ezik batzordeko talde guztiek onetsi daberen Ametzolako geltokiaren inguruko ekimenean, eskaria egiten jako Renfe-Adif operadoreari, Ametzolako geltokiko pantailek Renferen C1 eta C2 lineatako eta Feveren C1f lineako, lehen Bilbo-Balmaseda zan lineako, aldirietako trenen ordutegien inguruko informazinoa eskini daien. Eskari horri beste bat gehitu jako, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen ekimenez, gehikuntzako zuzenketa-eske moduan, Bizkaiko Batzar Nagusiek Renferen eta Feveren aldirietako lineen transferentzia Euskadiren esku iztea eskatu deioen Espainiako Gobernuari.

BIZKAIBUSEN KOSTUA

Beste alde batetik, Batzordeko talde guztiak EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu daberen zuzenketa-eske baten alde agertu dira, “gardentasun handiagoa izateko”. Zuzenketa-eske horrek PPre arauz besteko proposamena zuzentzen eban. Bertan, eskaria egiten da Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Sailak bere webgunean Bizkaibuseko esleipenak dituen enpresakaz sinatu diran “kontratuetan jasoten dan kilometro bakoitzeko prezioaren” barri emon daian, “urtez-urte eguneratuta”.

TARIFEN INTEGRAZINOA

Halanda be, Bizkaiko Batzarrek ez ditue onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoakaz, Bizkaiko garraio publikoaren tarifen integrazioaren inguruko arauz besteko proposamen bi –bat EH Bildurena eta beste bat PPrena–. Koalitzino abertzaleak arauz besteko proposamen bat aurkeztu dau, eskaria egiteko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, 3. linea martxan jarriko dala baliauz, Euskotrenek lurraldean dituan zerbitzu guztien zerbitzuak Metroarenakaz “integretako”, eta ez bakarrik Eusko Jaurlaritzaren esku dagon operadoreak ustiatuko dauen lur azpiko lineako tarifak.

PP taldeak, bere aldetik, tarifen integrazio horregaz erlazionatuko bere arauz besteko proposamena defendidu dau. Talde horren eretziz, “preminazkoa” da Aldundiak, Eusko Jaurlaritzagaz eta Bilboko Udalagaz batera, “trenbideko garraioko tarifak lehenengo, alde batetik, eta errepideko garraioko tarifak, bestetik” bateratzeko emon beharreko lehenengo pausuak emotea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Erreklamazio horreetako bakarra be ez da onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek kontrako botoa emon dabelako. Talde horreek euren testu alternatiboa aurkeztu dabe, zuzenketa-eske moduan. Bizkaiko Batzarrek “erakunde eta operadore guztiei”, Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzaren barruan, tarifen integrazinoaren alde beharrea jarraitu daiela eskatzea gura dabe talde bi horreek. PPK eta EH Bilduk, oraindino eratu barik dagon erakunde batean oinarritzea aurpegiratu deutsee jeltzaleei eta sozialisteei, eta ez ditue talde horreen zuzenketa-eskeak onartu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/01/2017

Bizkaia reclama a Adif y Renfe mejoras "urgentes" en las líneas de Feve

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana en su comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, una enmienda transaccional firmada por PNV, PSE-EE y EH Bildu, para que Adif y Renfe, empresas dependientes del Gobierno central, realicen mejoras de forma "urgente" en las líneas encartadas de Feve (Bilbao-Balmaseda y Bilbao-Karrantza) ante el "deterioro continuado" de instalaciones, frecuencias y material móvil.

Todos los grupos junteros han coincidido en señalar que la línea Feve sufre una "dejadez histórica" por parte de la Administración del Estado. Para el juntero de EH Bildu Zigor Isuskiza, que traía a la Cámara una proposición no de norma, enmendada después por PNV y PSE-EE, es "lamentable y vergonzante" la situación de estas líneas ferroviarias de vía estrecha. Ha lamentado que "vayamos hacia atrás como los carramarros" por trayectos que duran "más que antes" o por "incidencias que llevan más de 4 años sin resolverse". El juntero de EH Bildu se ha acordado también de los últimos atropellos producidos en varios pasos a nivel.

El texto definitivo, que incorpora los puntos de la proposición no de norma de EH Bildu más otra serie de peticiones de los dos grupos que sustentan al Gobierno foral, deja claro, según el apoderado jeltzale Unai Lerma, las actuaciones que se tienen que llevar a cabo en la línea de Feve para mejorar su servicio. Son los "propios usuarios y trabajadores" quienes demandan estas soluciones, ha apuntado previamente el socialista Ekain Rico, quien ha lamentado que la "última inversión" en la línea data del año 1996. Se ha retrocedido, según él, a "tiempos de los años 60".

En el texto aprobado por todos los grupos junteros, a excepción del PP que se ha abstenido, las Juntas Generales de Bizkaia instan a las empresas Adif y Renfe y al Ministerio de Fomento del Gobierno español, "a que realicen las tareas de mejora y mantenimiento necesarias en el ferrocarril y las infraestructuras (estaciones, apeaderos, andenes y pasos ferroviarios) de las líneas Bilbao Abando-Balmaseda y Bilbao Abando-Karrantza, al objeto de proveerlas de los servicios precisos, y de garantizar la accesibilidad y la seguridad de todas las personas usuarias de dicho servicio ferroviario".

Bizkaia reclama que se inicie "un calendario de actuaciones" para dotar de doble vía al tramo comprendido entre la estación de Zaramillo y la de Aranguren y se proceda a un "Plan de mejora continua del trazado de la vía". Además, la Cámara territorial solicita que se "estudie" la posibilidad de dotar a dicha línea de trenes nocturnos para acudir a festejos y actos significativos, así como la incorporación de personal de atención al público.

El Parlamento de Bizkaia ha instado también al Estado a que proceda a la finalización del tendido eléctrico entre la estación de Aranguren y Karrantza, y a que se establezca un calendario de sustitución de las viejas unidades de los vehículos ferroviarios, dotándoles de conexiones a telefonía móvil y a redes wifi.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Asimismo, el Parlamento vizcaíno solicita también que se aumente la frecuencia de servicio de la línea Karrantza-Bilbao y que se realicen inversiones técnicas en los pasos ferroviarios de mayor tiempo de espera, así como la supresión de aquellos cruces de mayor uso por parte de personas y vehículos.

TRANSFERENCIA A EUSKADI DE RENFE Y FEVE

Por último, en el mismo documento, las Juntas Generales de Bizkaia instan al Gobierno español a que transfiera "a la mayor brevedad" al Gobierno vasco la gestión de la red ferroviaria, un tema que ha suscitado entre los grupos junteros una discusión previa por otra proposición no de norma de EH Bildu ligada a mejoras de comunicación en la estación de Ametzola. Este punto ha significado que el PP se haya abstenido por entender que pedir esta transferencia supone ir en contra de lo que se recoge en la propia Constitución, ya que existen líneas que recorren otras Comunidades Autónomas como la Bilbao-Orduña.

En la iniciativa sobre Ametzola, aprobada con el apoyo de todos los grupos de la Cámara excepto el PP, se insta al operador Renfe-Adif a que ofrezca en las pantallas de la estación de Ametzola "información horaria conjunta tanto de los trenes de cercanías de Renfe en sus dos líneas C1 y C2 como de los de la línea C1f, anteriormente Bilbao-Balmaseda de Feve". A esta petición se ha sumado otra, por iniciativa de PNV y PSE-EE en forma de enmienda de adición, para que las Juntas Generales de Bizkaia demanden al Gobierno de España la transferencia de las líneas de cercanías de Renfe y de Feve al Gobierno Vasco."

COSTE DE BIZKAIBUS

Por otro lado, "en aras a una mayor transparencia", todos los grupos junteros han apoyado una enmienda de PNV y PSE-EE, que corregía una proposición no de norma del PP, para que el Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, cuelgue en su página web, "el precio por kilómetro recogido en los contratos" de las adjudicatarias de Bizkaibus, "actualizado anualmente".

INTEGRACIÓN TARIFARIA

Sin embargo, la Cámara vizcaína ha rechazado con los votos de PNV y PSE-EE dos proposiciones no de norma –una de EH Bildu y PP- en relación a la integración tarifaria del transporte público de Bizkaia.

La coalición abertzale presentaba una iniciativa no de norma para instar a la Diputación y al Gobierno vasco a que con motivo de la puesta en marcha de la Línea 3, "integrasen" las tarifas de todos los servicios que Euskotren tiene en el territorio con las de Metro, y no sólo los que afectan a la línea suburbana que será explotada por el operador dependiente del Gobierno vasco.

Por su parte, el PP defendía su propia proposición no de norma en relación a esta integración tarifaria. Para este grupo es "apremiante" que la Diputación, junto con el Gobierno vasco y el Ayuntamiento de Bilbao, inicien los pasos necesarios para unificar "en primer lugar las tarifas del transporte ferroviario, por un lado, y las de transporte por carretera, por otro".



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ambas reclamaciones han sido tumbadas por PNV y PSE-EE que habían presentado su texto alternativo en forma de enmienda. Los dos grupos querían que el Parlamento de Bizkaia instase a “todas las instituciones y operadores a continuar trabajando en la integración tarifaria en el marco de la Autoridad de Movilidad de Bizkaia”. PP y EH Bildu han afeado a nacionalistas y socialistas que se apoyen en una entidad que todavía no está constituida, y se han negado a aceptar las enmiendas.